

IRITZIA

Arnaitz Gorriti

ERREPORTAIA

Etorkizuna

Taroteko kartetan

BERBETAN

Jesus Mari Sarasua

Ongarri Argazki

Taldeko presidentea

GEHIGARRIA

KiliBARREN

berriz martxan

GEHIGARRI

BEREZIA

Sagardotegien gida

KULTURA

Tina Modotti argazkilaria italiarraren

erakusketa

BARREN

1998ko urtarrilaren 30a
VI. urtea - 223.
zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Mari Mar Juaristi Etorkizuna iragartzen

“Iristear dauden gertaerek euren itzala erakusten dute” T. Campbell

AUTOENTZAKO ASEGURUEN AUKE- RA ZABAL ETA BERRIENA



ZURETZAT EGINA



San Frantzisko, 40-behea
Tel. 74 05 82-74 14 04
Faxa: 74 17 07
20870 ELGOIBAR



Antolatzaileak:



Elgoibarko Izarra

Laguntzaileak:



Elgoibarko Udala



Eusko Jaurlaritza

LARUNBATERO

LHko 3-4 mailak

Atxutxiamaika Begirale Taldearekin

DATAK: Otsaila: 14, 21, 28
Martxoa: 7, 14, 28
Apirila: 4

ORDUTEGIA: 16:00-19:00

EKINTZAK: lhauteriak, jolasak, eskulanak, sorpresak...

PREZIOA: 2.500 pta.

IZENA EMATEKO: Elgoibarko Izarra K. E.
Ubitarte, 4 behea
Tel: 74 16 26

IZENA EMATEKO EPEA: otsailaren 2tik
10era



ARNAITZ GORRITI

Kolaboratu, madarikatuok!

Barkatuko didazue, baina oroimena ez da nire bertuterik nagusiena. Orain dela hilabete bat, gutxi gorabehera, hirugarren munduko haurrak apadrinatzeke eskatuz 24 orduko saio bat burutu zen. Beranduago, BARRENeK kale inkesta batean apadrinazio hauei buruz galdegin zuen. Gehienek hau erantzun zuten: ongi iruditzen zitzaizkiela apadrinazioak, horrela mundua ez litzatekeela-ko hain gaizki joango. Barka, baina hori esateko inozo samarra izan behar dela uste dut.

Telebistaz ume bat erdi bilutsik, gosez, zikin, hotzez... ikustean, errukitu egiten gara eta batzuetan apadrinatu egiten dugu. Horrela, ume hori ongi bizi ahalko da. Inozoak. Haur bat, bi, mila, milioi bat... apadrinatuta ere, ez dugu ezer konponduko, BENETAN. Ez, behintzat, hirugarren munduko estruktura politiko eta sozioekonomikoak aldatzen ez diren bitartean. Beraz, apadrinazioen "konponbidea" faltsua da. Gainera, hirugarren mundua hain da zabala, non lehenengo mundu osoak haur bat apadrinatuta ere,

mundu erdia baino gehiago goseak egongo litzatekeela.

Bestalde, ba al dakizue zer den %0,7 plana? Ziur ezetz. 1972 urtean ONUK ezarritako plana, non herrialde aberatse- nek beren aurrekontuen %0,7a hirugarren mundura bidaliko zuten. Ba al dakizue zenbat herrialdek bete duten plan hau? Bostek, gehien jota. Ba al dakizue Espainiak zenbat bidali zuen iaz? %0,28a. Lot-sagarria.

Dena den, arazo horiek ez dira hain garrantzitsuak guretzat. Haur bat apadrinatu dugunez gero, guri zer? Hor dago arazoa! Gutako nor jabetzen da pobreziaren hedapenez? Inor ere ez! Laguntzen dugunotatik %95ak kontzientzia lasaitzeko laguntzen dugu! Aizue, ba al dakizue Espainian 8.000.000 pertsona mi-

serian bizi direla, Espainian, lehenengo munduan? Eta Espainiakoa adibide ziztrin bat baino ez da. Tira, amaitzeko, honako hau esan nahi nuke: lan honen izenburua sarkasmo bat izateaz gain, erregu bat ere badela. Beraz, kolabora dezagun, baina gauzak ganoraz eginez.

"Haur bat, bi, mila, milioi bat... apadrinatuta ere, ez dugu ezer konponduko, BENETAN. Ez behintzat, hirugarren munduko estruktura politiko eta sozioekonomikoak aldatzen ez diren bitartean"

Atal hau ez da BARRENeN editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

BARRA, BIRRAK eta BARREAK



©KOKOF 98 • 2



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 ☎ **74 41 12**
Publizitatea:
 ☎ **74 37 04**
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegi, Ana Artetxe, Jon Garate, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Azken pintadak direla eta

Herrian agertu diren azken pintadak direla eta, Elgoibarko alka-tea den Gillermo Garate jaunaren adierazpenak irakurri ondoren, Zazpiki Irratitik honako hausnarketa egiten dugu:

Hormak ez dira edozergatik margotzen, inolako arrazoirik gabe. Antzinatek, Euskal Herrian bizi ziren biztanleek beraien kobazuloko hormak margotzen zituzten, ehizarako lagungarri zitzaielakoan. Gaur egun, kontestu ezberdinean margotzen dira hormak, politikoak, espresio kultural edo maitasun-gorroto inguruko kontestuan, batzuk aipatzeagatik.

Gaur egun hormak "zikintzea", espresio bide ezaren errua da, nahiz eta, betikoen ahoak hitz ugarirekin betetzen diren, Adierazpen Askatasuna guztiontzat dagoela aldarrikatuz, nahiz eta eskubide hau beraiei bakarrrik komeni zaien adierazpenetarako erabili.

Diru kontua ere aipatzen du alka-teak, eta tristea da bere adierazpenen funtsa hori izatea. Diru kontura mugatzen du Adierazpen Askatasuna, honek ez duenean inolako preziorik.

Badirudi, herri honetako jende batek pentsatzen duena edozein horma zuritan isladatzea zaplasteko bat dela, dauden zaplasteko bakarrak Adierazpen Askatasunaren kontrakoak izanik. Edo ahaztu egin al duzue, 5.000 pta.ko isunak jartzen zenituztela kartelak pegatzeagatik (nahiz eta zeloarekin jarri)?

Honengatik guztiarengatik, bidezkoa eta zilegi ikusten dugu hormak espresio bide izatea.

Gure aldetik, kaleko artista anoni-moei berean jarraitzeko animatu, eta zerbait gehiago esan nahi izanez gero, geurean baduzuela lekua esan nahi dizuegu, gure mikrofonoek ez baitute mugarik ezagutzen.

Aurrera Adierazpen Askatasuna!!!

Baltasar Elkarteko zuzendaritzaren oharra

Baltasar Elkartekooi BARREnera bidali genuen prentsa oharrean, elkarteko hildako bazkide baten izena aipatzea ahaztu zitzaigun. Lerro hauen bitartez, Alberto Etxanizen sendiari barkamena eskatu nahi diogu Alberto zenaren izena aipatzea ahaztu zitzaigulako. Gure asmoa, egindako akatsa zuzendu eta mezatan izan ziren guztiei bihotzez eskerrak ematea da.

Baltasar Elkarteko Zuzendaritza

Zazpiki Irratia (FM 107.6)

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

B AI, E S A N ?



Izaskun Belategi

Euskaltzalea eta
AEKko irakaslea

Aste honetako telefono deiaren aitzakia gure hizkuntza da, euskara, alegia. Denboralditxo bat darabagu euskara edo euskararen ingurukoak komunikabideetan notizia direla. Udalekuetako herriz beteriko motxilak, abokatu euskaldunei egindako epaiketak, AEKko material pedagogikoa etab. Zer da gertatzen ari dena? **Izaskun Belategi euskaltzaleari** deitu diogu bere inpresioak ezagutzeko.

- **Azken aldian euskara notizia da komunikabideetan, baina berri txarren bueltan beti.** - Hau ez da gauza berria, indarra daukaten komunikabideek euskarari buruz beti zentzu bereko berriak argitaratzen dituzte. Oraingoan AEKri tokatu zaio.

- **Esku beltzen bat ikusten al duzu guztiaren atzean? Zer lortu nahi dute?** - Ez dut ikusten. Egon badago eta ez bakarra. Beti egon dira eta egongo dira, azken batean identitate arazoa da. Euskarari eraso egiten diotenen ondo dakite gure identitatearen oinarria erasotuz errazago lortuko dutela kulturalki, euskaldunok euren atzea.

- **Zer egin behar dugu euskaldunok?** - Lehenik eta behin, euskaldunok, euskaltzaleok eta euskararen inguruan lanean dihardugun indar guztiok batu, euskaldunak ez direnak geureganatu eta era berean, euskara arlo guztietara zabaldu.

- **Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna Euskal Herrian?** - Egia esan, ez naiz oso baikorra. Ez nator bat agintariek transmititu nahi diguten baikortasunarekin, nahiz eta Autonomi Erkidegoan urrats txiki batzuk eman diren. Denok dakizkigun arrazoiengatik Ipar Euskerrian eta Nafarroan atzera pausoak nabarmenak dira.

KEXAK

◆ Madala inguruan bizi den auzotar batek deitu digu kexa hau plazaratzeko: **Alkortako etxea botatzearekin bat, hango errebueltan zegoen farola ere kendu egin zuten.** Jende asko ibiltzen gara han inguruan, bai goizean goiz, bai iluntzean ere. **Argirik ez dago eta ilun dagoenean beldurra ematen** du handik ibiltzeak. Badakit etxeak egitekotan direla bertan, baina probisionalki argitxoren bat inpintzea ez legoke gaizki”.

TXALOAK

◆ Gazte batek deitu digu honako hau esateko: “**BARRE-Nen 222. zenbakiko Zaharrak Berri** gehigarria irakurtzen ari nintzela, **gure edadetuek daukaten etorri paregabeaz jabetu naiz.** Benetan ederra da pertsona hauek euskaraz nola berba egiten duten irakurtzea (entzutea zer ote den!). Baina badaukat pena bat: pertsona hauek gure arteik doazen neurrian gure herriak ere barreskuratu ezingo duen berbetia galduko den errezeloa daukat. Bizirik zaudeten bitartean, behintzat, segi gure belarriak goxatzen”.

ESKERTZA



1998ko urtarrilaren 18an, 71 urte zituela, hil zen ISIDRO SAN MARTIN MAGUREGIren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Etorkizunaren iragarpena taroteko karten bidez

Andaluzia aldean ohitura da ijitoen artean eskuko lerroetan etorkizuna irakurtzea. Urte berri bati hasiera ematen zaion guztietan, han eta hemen irakur eta entzun dezakegu hainbat eta hainbat iragarpen: uholdeak izango direla, nazioartean egoera hobetu egingo dela, ekonomiak gora egingo duela... Askok dira noiz edo noiz kartak irakurtzen dituzten pertsonengana jotzen dutenak. Eta nork ez du, jakinmin bezalako ez bada ere, horoskopoa irakurri, egun horretan izarretan idatzia dagoena ezagutu nahian? Sineskeriak direla uste dute batzuek. Sorginkeria kontuetan ez sartzea hobe dela esaten dute beste batzuek. Baina, era batera edo bestera, kontua da etorkizunak asko kezkatzen gaituela eta norbaitek pistaren bat ematerik badu, adi-adi entzuten diogula, bada ez bada. Aste honetan gai hau landu nahi izan dugu eta horretarako, Elgoibarren bertan daukagun emakume batekin izan gara. Berak, Marimar Juaristik, taroteko karten bidez iragartzen du etorkizuna.



Marimar Juaristi elgoibartarra 17 urterekin hasi zen taroteko karte buruzkoak ikasten. Bere kasa. Urteak pasa ahala, jendea iragarritako hainbat gauza bete egiten zirela ikusi zuenean, bizimodua hortik ateratzea erabaki zuen eta 1992. urtean bere lanbidea taroteko karten bitartez etorkizuna iragartzea da. “Betidanik izan dut jakinmin berezia gai hauekiko. Izan ere, ume-umetatik intuizio nabarmena izan dut. Ez nuke esango igarle edo bidentea naizenik, baina badaukat energia indartsu bat nere baitan”. Halere, aitortu digunez, inoiz ez da ausartu bere barruan dagoen zerbait berezi hori gehiegi arakatzeko, “aterako da atera behar bada, baina bitartean, nahiago dut dagoeneta lagatzea”.

Marimar-ek bere kontura ikasi zuen tarotean agertzen diren guztiak irakurri eta interpretatzen, “liburu mordo bat irakurri nuen eta, poliki-poliki, inguruko jendearekin hasi nintzen praktikatzeko”. Azken batean, esaten duenez, “jendearen konfidantzari esker lortu dut aurrera egitea. Nik kartetan ikusten dudana esaten diet eta jendea asmatu egin duzula konturatzen

denean, ahoz aho zabaltzen du”. Lehenik eta behin bere buruarekin praktikatzen zuen baina ez omen da hain erraza, “zure buruarekin ezin duzu objektiboa izan. Oso ondo ezagutzen dituzu zerbait gauza eta gertatzen ari dena edo gertatuko dena iragartzea ez da erraza. Nahiago dut ezezagunekin egitea lan. Aurrean daukadan pertsonari buruz ezer jakin gabe hutsetik hastea”.

Mahai biribila eta intsentsua

Gaur egun taroteko kartak irakurtzetik bizi da Marimar, “ez da erraza. Tarotari buruzkoak edonork ikas ditzake baina nire ustez zer berezi bat izan behar da, intuizioa edo... Bakoitzak bere erara interpretatzen ditu kartak. Kartek pista bat ematen dute, gero zure esku dago pista hori ulertu, interpretatu eta lotzea”. Mahai biribil batean eserita, taroteko kartak eta karta espainiarrak hartuta egiten du lan. “Ez dezala pentsa jendeak giro arrarorik egoten denik. Batzuetan kandelaren bat pizten dut eta intsentsuaren usaina ere gogoko dut, baina ostantzean, argi normala egoten da eta ni ez naiz arropa arraroekin moztortzen”. Era guztietan,





Marimarrek bere kontura ikasi zuen taroteko kartak irakurtzen.

ko jendeak jotzen du horrelako kontsulta batera, “niregana adin desberdinetako jendea etorri izan da, bai emakumezkoak baita gizonezkoak ere. Halere, egia da andrak zaleagoak direla”. Batzuek maitasunari buruzkoak jakin nahi zuten dituzte, edo lan mundua nola aterako zaien, badira osasunaz arduratzen direnak... “Nik beti errespetatzen dut jendearen nahia. Orokorrean zer ikusten dudan jakin nahi dutenei dena esaten diet eta gai konkretu bati buruzko interesa duenari gai horren ingurukoak bakarrik esaten dizkiot. Ezer txarrik jakin nahi ez duenik ere izaten da, eta hori errespetatu egin behar da”.

Tarota eta karta espainiarrak

Lehenxeago aipatu dugu Marimarrek Tarota eta Karta espainiarrak erabiltzen dituela. Desberdinak omen dira. “Tarota espiritualagoa da. Zer gertatzen ari den, zer gertatuko den esaten duen arren, pertsonari buruz ere hitz egiten du, aholkuak ematen ditu... Karta espainiarrak, aldiz, materialagoa da, hotzagoa”.

Tarotak 78 karta ditu. Marimarrek esan digunez, “Kartetan dagoen denbora eta espazioa ez dira guk bizi ditugunak bezalakoa. Dimentsio desberdina da, horregatik ez dut nahi izaten epe luzera hitz egitea”. Izan ere, elgoibartar honen iritziak, “gure bizitzako zenbait gauza idatzita egon arren, gauzak alda ditzakegu. Hori garbi dago, ez gaude predestinatuak ezertara”.

Aholkuak

Kartak botatzen dituenaz ez da aurrea begira gertatuko diren gauzak iragar-

tzera mugatzen. “Badirudi hau guztia sorginkeria kontua dela eta ez da horrela, hori baino gai serioagoa da”. Izan ere, Marimarren hitzetan, “aholkuak ere ematen ditugu. Hau da, norbaitek zerbaiti buruz zalantzak dituenaz, aukera desberdinen aurrean nola jokatu ez dakienaz, gure laguntza luzatzen diogu eta kartetan ikusten dugunaren arabera, aholkuak eman. Psikologo antzekoak garelako esan daiteke, izan ere, psikologia dextente izan behar baita eta, nahi eta nahi ez, urteetan zehar, zure burua ezagutzeaz gain, jendea ere oso ondo ezagutzen duzu. Ez gara psikologoak, inolaz ere, baina gure lana da jendea laguntzea”.

Intrusismoa

Marimar garbi mintzatu zaigu gai hauen inguruan. Izan ere, azaldu digunez, “gaur egun publikitate asko egiten da gure kontra. Badirudi guztiok egiten dugula iruzurra. Moda-modako garaiak aukeratu eta tarotari buruzko oinarriko zenbait gauza ikasiz, badira demaseko irabaziak ateratzen dituztenak. Argi ibili behar da horiekin eta garbi izan, kartak botatzen dituen batengana jotzen dugunean ez diogula ezer esan behar, hau da, berak hitz egin dezala eta, amaitzen duenean, orduan kezka edo zalantza bat badago, galdetu. Badira aurrean duten pertsonari galderak eginez informazio mordo bat ateratzen dutenak. Nolanahi ere, beste lanbide guztietan bezala, hemen ere intrusismo handia dago baina baita benetako profesionalak ere. Edozein lanbide duen errespetu bera eskatzen dugu, besterik ez”.

“Nire bizitzako hainbat gauza asmatu zituen”

V.T.-k 36 urte ditu eta el-goibartarra da. Ez du bere izena ematerik nahi izan bere ustez gauza hauek oso pertsonalak direlako eta, nahi eta nahi ez, oraindik ere onartuegiak ez dauden gauzak direlako, “lagun batzuekin komenta dezakezu baina beste askok burutik zaudela esaten dute. Halere, gehienok daukagu jakinmina gauza hauekiko”. V.T.-k duela urtebete inguru jo zuen Marimarrengana, “alde batetik jakinmina nuen. Beti uste izan dut begiarekin ikusten dugunaz gain, beste zerbait ere bada-goela. Bestetik, arazo pertsonal txiki batzuen aurrean nola jokatu ez nekienez, aholkua ere behar nuen”. Marimar bistaz ezagutzen zuen eta taroteko kartekin lan egiten zuela esan zioten, “pertsona serioa zela eta benetako profesionala”. V.T.-k bere bizitzari buruz orokorrean hitz egin ziezaiola eskatu zion, “eta, poliki-poliki, nik ezer esan gabe, nire bizitzako hainbat gauza azaltzen joan ziren mahai gainean. Tarota zientzia bat da eta momentu jakin batean asko lagun diezazuke”. V.T.-k oso garbi dauka etorkizuna norberak alda dezakeela, “Marimarrek esan zidana lagungarria izan zitzaidan baina hortik aurrera zuk egin behar duzu lan. Hau da, taroteko kartek esaten dutenak ez zaitu baldintzatu behar”. Urtebeteko epea pasa da V.T. Marimarren kontsultara joan zenetik, “denbora honetan berak aurrikusi zituen gauza batzuk gertatu zaizkit, berak esandako detaile txiki guztiekin. Gezurra dirudi, baina asmatu egin zuen”. Hurrena noiz joango den ez daki, “nik uste, batez ere arazoak edo zalantzak dituzunean jotzen duzula horrela koetara, nahiz eta batzuk jakinmina dutelako joan. Printzipioz, denbora gehiago pasa arte ez daukat bueltatzeko asmorik. Noizean behin egoten naiz Marimar-ekin, kontsulta izan genuenetik lagunak gara eta”.

Ba al duzu etorkizunari buruzko jakinminik?



ANA MARI AGOTE
43 urte, etxekoandrea

Ez, inundik inora ere ez. Igual bildur apur bat ematen dia jakitiak zer gertaiko jatan. Destinua idatzita dau-la izan leike baina ez dot us-te jakin leikenik.



ANDER ANSUATEGI
16 urte, ikaslea

Ez. Nahixo dot datorren moduan hartzia. Pertsona bakoitzan barruan dao bere etorkizuna, eta tarota, ho-roskopuak eta holakuetan ez dot sinisten.



MONTSE SOTO
22 urte, administraria

Ez. Ez dot tarotian eta hola-ko gauzetan sinisten, dirua ateratzeko dao. Horosko-pua eta holakuak irakurtzen dau jendiak kuriosidadez baina ez dao fiatzerik.




JOSE ENRIQUE GARCÍA
56 urte, mekanikoa

Nori ez litzaioke gustatuko etorkizunean zer gertatuko zaizun jakitea! Baina ezi-nezkoa da. Iragartzaile batek kasualitatez asma dezake zerbaite, baina kasualitatez.



ITZIAR ETXANIZ
54 urte, etxekoandrea

Datorrena datorren moduan hartu eta kitto. Etorkizuna asmatzia ez da posible. Ho-roskopua beirutzen dot bai-na etxekoandriei buruz ez dau ezer esaten.



JULIAN GARCÍA
58 urte, langabetua

Ez. Ni konforme nago dau-kadanarekin. Gauza txarrak esan behar badizkidate, ho-be ezer ez jakin. Egunean egunekoa bizi behar da.

Dario autobusak

Oso gertu gaude, urrutira eramateko.



Pedro Muguruza etorb., 8
Tel: 74 16 77
Mugikorra: 907 41 04 10



askun Estibarizek 56 urtekoa da, Santa n ateratakoa. Bertan 'Madre del Sagrado k dira, 3 ikasturte ez- is dezakegunez, garai kin joaten ziren eskola- bata eta txapela eta

Bigarren ilaran: **M. Pilar Ortueta, Imma Iriondo, Lierni Arizmendiarieta, Kontxi Dobarro eta Izaskun Estibariz.**

Hirugarren ilaran: **Conchi San Millan, Mila Osoro, M. Jesus Salegi eta M. Jose Vazquez.**

Laugarren ilaran: **M. Carmen Fidalgo, M. Isabel Castillo, M. Tere Ansola eta Arantxa Eskudero.**

Bosgarren ilaran: **Mercedes Ubiria, Arrate Zubiaurre eta ezezaguna.**

Seigarren ilaran: **M. Glori Garate, Rosi Cid, M. Isabel Bustos eta ezezaguna.**

Atzeko laurak: **Mari Fer Aizpitarte, Laura Zubiaurre, Eloisa Zubiaurre eta Tere Garitagoitia.**

Arantxa Mendikute,

Arantxa Berrueta, Alicia Ansola, M. Dolores Otero, M. Jose Arandia eta M. Jesus Santos.

HERRI-GAİN
ERRETEGIÀ

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 20 35 15 ● ☎ ABERIAK 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

● Lapurretak etxebizitzetan

Udaltzaingotik jakinarazi digutenez, azken hilabete eta erdian lauzpabost lapurreta egon dira Elgoibarko hainbat etxetan. Lapurretak, Urasandin, San Roken, Santa Klaran eta Arrillaga kaleetan izan dira. Jabier Oñederra sarjentuak komentatu digunez, "lapurreta guztietan detaile bat igarri dugu: lapurreta egin duten etxe guztietan, zerraila ez zegoen giltzarekin itxita. Ez dakigu zein metodo erabiltzen duten, baina aterik ez dute bortxatzen, tarjetaren bat edo giltza bereziren bat edukiko dutela uste dugu". Itxuraz, lapurrak 30 bat urteko emakume bat eta gizon bat dira, bi urteko ume batekin ibiltzen direnak. Ez dute gauez lapurtzen, egun argiz baizik. Azken lapurreta astelehenean gertatu zen eta balio handiko gauzak eraman zituzten. Joan den astean, berriz, Arrillaga kaleko ferreteria batean sartu eta material mordoia lapurtu zuten. Horrelako lapurretei aurre egitea zaila den arren, sarjentuaren esanetan, "nik behintzat, atak giltzaz ondo ixtea gomendatuko nuke".

● Botoi formako pilak jasotzeko zerbitzua

Aurrerantzean, botoi formako pilak zabor kontenedoreen aldamenen jarrita dauden ontzi horietan jasoko dira, gainerako pilekin batera. Mankomunitateak Eibar, Ermua, Elgoibar, Plazentzia, Mutriku, Deba, Mendaro eta Mallabian pilentzako 50 ontzi hori jarri ditu. Izan ere, botoi formako pilak oso kutsakorrak dira. Deba Beheko Mankomunitateak bere gain hartu du ontzietan bildutako pila kutsakorrak eta gainerakoak bereizteko ardura.

Karakateko antenaren obrak geldirik

Antenaren lanak baimenik gabe ari dira egiten

Elgoibarko Udalak espediente ireki dio Telefónica Móviles SA enpresari baimenik gabe antena bat jartzeko obrak hasi dituelako Karakaten eta, era berean, martxan zeuden obrak geldiaraztea agindu du. Udaletxetik jakinarazi digutenez, horrelako ekintzak beti dira salagarriak eta aipaturiko espedienteaz zabalteaz gain, aurrera begira legea kontuan hartuta beharrezko pausok emateko prest ere azaldu dira.

Telefónica Móviles SA enpresak abenduaren erdi aldera hasi zituen 20 metroko antena jartzeko obrak. Dagoeneko, enpresak porlanezko oinarria egina zeukan, eta gainean antena eraikitzen zegoen. Halere, Elgoibarko Udalean inork ez zuen antenaren ezartzearen berri eman, ez eta beharrezkoa den baimena eskatu ere. Hori dela eta, obrak geldiaraztea erabaki du Udalak eta espediente irekitzea.



Udal Txistulari Taldea, Arrasateko musikeskolaren 25. urteurrenean

Udal Txistulari Taldeak Arrasate Musikal musikeskolaren 25. urteurreneko ospakizunetan parte hartuko du. Domekan, otsailak 1, kontzertua eskainiko dute Arrasaten Juan Karlos Larreategi txistu irakasleak zuzenduta. Federico Korto, Joxe Mari Iparragirre, Raimundo Sarriegi, Isidro Ansorena eta Jose Inazio Ansorenaren hainbat lan joko dituzte eguerdiko ordu batean hasiko den emanaldian. Aurretik, kalejira egingo dute Arrasateko kaleetan zehar. Argazkian, Elgoibarko Udal Txistulari Taldea, jantzi berriekin.



azkue

Venezuelako erakundeetako ordezkariak IMHn

Venezuelako hainbat erakundeetako zenbait ordezkari Makina Erremintaren Institutuan izan ziren joan den ostegunean. Bisitaren asmoa IMHko instalakuntzak lekuan bertan ikustea zen. IMHn egon ziren La Victoria Informazio Digitalerako Zentroko presidentea, Zientzia eta Teknologiaren Estatu idazkaria, CETEC Fundazioako presidentea eta Hezkuntza Zuzendari Nagusia, besteak beste. IMH ikastetxea ikusi ondoren, CAF eta Eusko Trenbideak enpresak bisitatu izan ziren.



aitor

Maria De los Bueis, 104 urteko elgoibartarra hil da

Duela hilabete edo, Jubilatutako Maria de Los Bueis elgoibartarrari egin zion omenaldiaren berri eman genuen BARRENen. 103 urte zituen eta elgoibartar zaharrena zela jakinik, erretratu bat atera genion, azkena izango zela pentsatu gabe. Aste honetan jakin dugu hil egin dela, 104 urte egin berri zituela. Maria De los Bueis Palencian jaioa zen baina duela 75 urte Elgoibarrera etorria. Gregorio Uriarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen.



Ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako haurren jaialdia

Joan den ostiral iluntzean, San Bartolome ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako 360 bat haur protagonista bihurtu ziren pare bat orduz. Ikastolako frontoia guraso, irakasle eta ikasle ohiekin bete zen, 2 urtetik hasi eta 6. mailara bitarteko ikasleen antzerki eta dantza saioak ikusteko asmoz joan zirenak. Dударik ez dago haurren graziak eta alaitasunak kanpoko hotza uxatzen lagundu zutela.



Bonardi kolekzioa

Zure begietarako onak Zure poltsikorako onak

Bonardi kolekzioa

3.150 pta.

Ordaintzeko orduan abantaila ugari:

- MultiOpticas kreditu txartela. Dirurik gabe erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunera egitea eska dezakezu, inolako gainkargarik gabe.



LOR ITZAZU
MULTIOPTICAS-en
<<TRAVEL CLUB>>
PROGRAMAREN PUNTUAK

MULTIOPTICAS
UZURI OPTIKA

ELGOIBAR
San Frantzisko, 21 • Tel: 74 03 59

Faxa: 74 06 16

DEBA

Ostolaza, 7 • Tel: 19 21 92

Jesus Mari Sarasuak 38 urte ditu eta administraria da ofizioz. Gaztetan, 80ko hamarkadan, Tol taldea sortu eta Oasis izeneko diska kaleratu zuten. Halere, musika mundua alde batera lagata, beste afizio bati heldu zion gogotik, argazkilaritza hain zuzen. Ongarri Argazki Taldearen sortzaileetarikoa eta lehendakaria da. Iazko abenduan Aurrez Aurre izeneko erakusketa antolatu zuten, egin dituzten garrantzi-tsuenetarikoa. Hasi berria da 1998ko lehen erakusketa Tina Modottiren argazkiekin eta urtean zehar, Haritz Dantza Taldearen 25. urteurrena ospatzeko beste pare bat proiektu ere ari dira prestatzen.

“Ongarrin hasitako bizpahiru argazkilari elgoibartar ezagunak dira kanpoan”

– **Argazkilaritza beti izan duzu afizio?**

- Bai. Oso garbi daukat desberdina dala afizio edo ofizio modura eukitzia. Nik nere ofizioa badaukat eta hortik aurrera ditudan kuriosidadiak edo ilusio txuak nahio det afizio modura disfrutatzea. Nik sekula ez dot planteamendu seriorik egin. Batzuentzat oso inportantea izaten da kalidadea, garbitasuna eta hori dena. Ni alde horretatik ez naiz gehiegi preokupatu. Gehiago gustatzen zait sentsazio batzuk bizi, ikusi, sentitu eta argazkien bidez eta argazkien aitzakiarekin isladatzea.

– **1981ean sortu zenuten Ongarri. Zein dira helburuak?**

- Alde batetik, gaztiei

laguntzea. Gu hasi ginan inor ez geneukan laguntzeko, libururik ez geneukan, laborategia oso tristia zan... Orain liburutegi majoa dago, laborategia ongi ekipatua.... Gero, erakusketen programazioa dago. Saiatzen gara urtean behin Euskal Herriko argazkilari bat bultzatzen eta gainontzean kanpotik ekarritako argazkilari handien erakusketak antolatzen.

– **Zaila al da?**

- Gero eta gehiago. Batetik ekonomikoki. Erakusketa batek, batez beste, 200.000 eta 1.500.000 pta. bitarteko kostua du. Batzuetan argazkiak alkilatu egiten ditugu eta beste batzuetan erosi. Hori dela eta, gaur egun oso bilduma inportantea daukagu baina

arazoak ematen ditu, ze mantentzeak ere kostua suposatzen du. 200 argazki inguru ditugu eta pentsatzen ari gara bilduma saldu, nonbaiten laga edo zer egin dezakegun.

– **Erakusketek harrera ona izaten al dute?**

- Bai. Pertsona batzuk fijoak dira eta kanpotik etortzen dira. Herri mailan, jendea beste edozein erakusketa ikustera joaten den bezala joaten da gure etara. Bilbo edo Donostian antolatzen diren erakusketen media daukagu, gutxi gorabehera. Guretzat garrantzitsuenak, erakusketa ikustera doan pertsona bat ateratzen denean hurrengo erakusketa ikustera joateko gogoarekin geratzea da. Inkonsienteki, kalitatezko argazkien kultura jasotzen ari da herritarra.

– **Zein da Ongarriren erronka?**

- Mantentzea, batez ere mantentzea. Maila bat izatea lortu dugu baina atzetik urte askotako lan gogorra dago. Batetik, gure inguruan hasitako bizpahiru gazte kanpoan ere ezagunak dira eta hori inportantea da. Bestetik, nazioarte mailako argazkilariek konfidantza dute gudan. Ongarri kanpoan ezaguna da gaur egun, erreferentzia dute gutaz eta hori oso garrantzitsua da. *Aurrez Aurre*, esate baterako, Elgoibarren bakarrik egin zen eta Bartzelonan egiteko eskaera iritsi zaigu. Satisfazioa ematen du. Horretatik diot mantentzea dela erronkarik handiena.

BESTEAK ESANA

“Argazkilaritzan eta Ongarrin murgilduta dago. Karisma handiko pertsona da eta konfidantza ematen du. Gaur egun Elgoibarren erakusketa egitea prestigio bat da edonorentzat eta hori Jesus Marik lortu du”

EDU ARRILLAGA, argazkilaria



ERAKUSKETA
GARRANTZITSUA

KiliBARREN

Urtarrilaren 30a
44. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



KiliBARRENi berriro ere ekiteko asmoz, lehenengo ale honetarako aukeratu dugun argazkia honako hau da. Erretratua **Juan Loiolak** laga digu eta bertan, Mendaroko gazte koadrila bat azaltzen zaigu. 1959. urte inguruan aterata dago, Ostiral Santu egun batez, Azpilgoetako frontoian.

Hona hemen argazkian agertzen direnen izen-abizenak: Goiko aldean, ezkerretik hasita: **Martin Ulazia, Jose**

Mari Iriondo, Juan Inazio Landa eta Jabier Urbieta.

Segidan baina piska bat beheraxeago, (ezkerretik hasita): **Santiago Lazarbaster, Anjel Mari Zulaika, Gregorio Vives eta Juan Loiola.**

Erdian, ezkerretik hasita: **Antonio Iriondo, Jose Angel Andonegi, Antxon Piñel, Juan Luis Sanz, Agustin Mari Berasaluze, Pedro Azpiazu eta Jose Luis Atxa.**

Behean: **Inazio Garate, Martin Urain, Jose Mari Loiola (gainean), Jose Mari Zelaia (azpian), Manolo Lazarbaster eta Jose Antonio Loiola.**

Truk

San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21

Truk

Idoia Arrillaga
PODOLOGA

CPI

CENTRO PODOLOGICO
IBILTZEN
ZENTRU PODOLOJIKOA

Ubitarte plaza, 11 Tel: 74 36 56

Lan talde berria

KiliBARRENen

Mendaroko KiliBARREN aldizkaria orain dela lau urte sortu zen. Hasierako lan taldean hainbat mendarotar ibili ziren baina denborarekin, arrazoi desberdinak medio, laga egin zuten eta haien erreleboa beste talde batek hartu zuen. Orain gutxi arte Oihana Tarragual izan da arduraduna baina honek ere, ikasketek hala behartuta besteak beste, KiliBARREN aldizkarian kolaboratzeari utzi egin behar izan dio. KiliBARREN desagertzeko zorian egon da inor ez baitzegoen prest hilero-hilero herriko berriak jaso eta idazteko. Halere, zorionez, mutil talde batek hartu du erronka eta honako hau, 1998ko urtarrilekoa, gazte mendarotarrak egin duten lehen gehigarria da.

Oihana Tarragual duela hiruzpau urte hasi zen KiliBARRENen lanean. Halere, aurretik zenbait kolaborazio egin zituen BARREN aldizkarian. Izan ere, kazetaritza betidanik gustatu izan zaio eta Elgoibarko Institutuan ikasten ari zela, Alaitz Vives-ekin batera gazteen atalerako artikuluak idazteko ardura hartu zuen. Gero, Unibertsitatean hasi zenean kazetaritza ikasten, aukera ona iruditu zitzaion KiliBARREN hilebetekariari heltzea. Oihanak azaldu digunez, “KiliBARRENen egindako lanari esker asko ikasi dot. Neregatik gehiago ere jarraituko nuke baina arrazoi ba-

tzuegatik gero eta zaila da hilero-hilero ardura hau eukitzia”. Halere, esperimentzia ona izan dela aitortu du nahiz eta batzuetan gauzak oso errazak ez izan, “esate baterako, kale inkesta egiterakoan jendea prest egoten da baina ez du nahi izaten argazkia ateratzetik. Arazoa da Mendaron jende gutxi bizi dela eta batzuetan aurpegiak errepikatu egin behar izaten direla. Atalik politxena argazki zaharrana da ze bitxikeria asko ikusten dia”. Esan digunez, momenturik onenak hasieran bizi izan zituen, “ilusioa gehixen hasieran eukitzen dozu. Gero, denboriakin justu xamar zabiz askotan eta ilusua ere gal-

tzen dozu baina beti interes guztixa ipini dot nere lana eitzen”. KiliBARREN, BARREN astekarian hiltetero agertzen den gehigarria, “eta horrek muga batzuk ditu eduki aldetik. Onena izango litzateke KiliBARRENek beste edozein aldizkarik bezala egitura propioa izatea. Helburua Mendaron aldizkari propioa sortzea izango litzateke baina herri txikiegia dela uste dut eta ez dakit nahikoa informazio emango lukeen”.

Oihanak KiliBARRENeko kolaboratzaile berrioi aholku bat eman digu, “lasai eta pazientziarekin hartu. Jendarekin harreman asko izan eta lan guztiak interesarekin egin”.



Migel Zabala

“Ondo iruitzen zait kiliBARREN berriz hastia. Asko gustatzen jata irakurtzia eta ateatzen darian irakurtzen det. Gauza politta da holako gauza bat herrixan eukitzia. Nei gehixen gustatzen jatan zatixa erretratu zaharra da, ezagunak azaltzen dialako”.



Karmen Arakistain

“Nere ustez merezi du berriz hastia. KiliBARREN azaltzen denean goitik behera irakurtzen dot. Geldirik egon denean kiliBARREN faltan bota det. Ez dut faltan botatzen atalik, baina beste bat jartzekotan, kultur atal bat jarriko nuke. KiliBARREN azaltzen denean gusturago irakurtzen dut BARREN”.



Iñigo Zubiaurre

“Merezi du KiliBARREN berriz hastia. Goitik behera irakurtzen det eta asko gustatzen jata. Falta izan darian Mendarori buruzko informazio gutxiagoz enteratu naiz. Nere ustez kirol gehiago eta kale inkesta gehiago egin beharko lirateke. Aste-oro irakurtzen det BARREN, baina KiliBARRENekin gusturago”.



“Esperientziarik ez dakagu, baina ilusio haundixakin hasi gera”

- Nolatan animatu zineten KiliBARRE-Neko ardura hartzera?

- Kalian entzun gendun. Kuadrilako bat Oihanen lehengusua da eta harek esan zion lagatzekotan zabilela. Gu kuadrilan lagun asko gera eta pentsau genduan danon artian zeozer eitzeko moduan egongo ginala.

- Pena ematen zuen KiliBARREN desagertzeak, ez?

- Bai, ze azken finian Mendaroko notiziak irakurtzeko era bat zan. BARREN as-terero jasotzen dou baina ez da berdina. Gusturo irakurtzen dozu azaltzen dan jendia ezaguna bada eta notiziak ere zure herrikuak baldin badia. Lehen hilero zain egoten ginan kiliBARREN noiz ailegauko. Oin, hola segitzia espero dou.

- 15-16 urteko gazteaz zarete.

- Bai. Guk ez dakagu batere esperien-ziarik holako gauzetan. Ondiokan institu-

tuau gaude ikasten eta guretzat hau dana berrixa da baina ilusio haundixakin hasi gera eta inportantiena hori da. Esperientzia jungo gera hartzen poliki-poliki eta usten dou inguruan egongo dala jendia laguntze-ko prest.

- Lehenengo gehigarria egin duzue. Zer moduz?

- Ondo. Egixa esan, denbora aldetik nahiko justu ibili gera baina aurrera begira, hilabete batian gauza asko eitzeko aukeria dao.

- Kazetari berriak aterako al dira espe-rientzia berri honetatik?

- Batek daki! Momentuz inork ez dau planteau ere eitzen holakorik! Gu gustora hasi gera eta gure atzetik beste batzuek ere hartuko dabe relebua. Hau kate bat moduan izan bihar da, batzuen atzetik beste batzuk etorri bihar dia.



Anton Zubiaurre

MENDAROKO ALKATEA

“Beno, badirudi KiliBARRENeK jarraitzeko itxura hartu duela. Azken hiru hila-beteotan aldizkari gabe egon gara eta kalean batek baino gehiagok galdetu dit ea KiliBARREN ez den berriz ere argitaratuko. Nere etxean ere, nik neuk barne, somatu dugu falta. Egia esan, ez daukagu euskaraz irakurtzeko batere ohiturarik baina BARREN eskuartearen hartzen dugunean begirada bat botatzen diogu beti, eta aste horretan, hilero bezala, kiliBARREN toka-tzen bada, endemas. Izan ere, gustura baino gusturago irakurtzen ditugu gure herriko notiziak, gure bizilagunek ematen dituzten iritziak eta gure historiaren parte diren erretratu zaharrak begiratzean gauza eta oroitzen asko etortzen zaizkigu burura.

Azkenean, herriko gazte talde batek KiliBARRENen kolaboratzeko asmoa azaldu du. Beraz, gazte talde hori animatzea, besterik ez jata geratzen, lana ondo bete dezaten. Aurretik izan diren kolaboratzaileei, berriz, eskerrak eman nahi dizkiet egin izan duten lanagatik. Eta KiliBARRENeK irakurleei, mendarotarrei, hasi berriak diren gazteengan konfiantza izan dezatela eskatuko nieke, esperientziarik gabe baina ilusioz animatu diren gazteak baitira.

KILIBARREneko KOLABORATZAILEAK IZAN DIRENAK

Aitor Etxeberria, Aingeru Gallastegi, Mikel Garate, Haritz Goikoetxea, Iraide Loiola, Maria Longarte, Ziortza Urbietta, Alaitz Vives, Garbiñe Zabala, Aitziber Gurrutxaga, Elena Zubiaurre eta Oihana Tarragual.
MILA ESKER GUZTIEI!

❖ **Trikitixa ikastaroa**

Trikitixa ikastaro bat antolatzeko asmoa dago eta horretarako jendearen artean dagoen interesa jakin nahi da. Nahi dutenek aurreinskripzioa egin dezakete Udaletxean otsailaren 11 baino lehen.

❖ **Mendaroko III. Ipuin Lehiaketa**

Urtarrilaren 4an banatu ziren Euskarazko III. Ipuin Lehiaketaren sariak. Guztira 24 ipuin aurkeztu ziren, 11 A mailan eta 13 B mailan. Hona hemen irabazleak:

A MAILA:

1. saria: Amaia Madariaga, (Elgoibar), "Ametsen munduan" lanarengatik.

2. saria: Uxue Alberdi (Elgoibar), "Aitonarekin solasean" ipuinarengatik.

Akzesita: Ane Palomino elgoibartarrentzat "Mahai tresnen abentura" lanarengatik.

Herriko onena: Naiara Eizagirre, "Maitasuna" ipuinarengatik eta Joana Salgado "Kontu kontari" idatziarengatik.

B MAILA:

1. saria: Unai Villena elgoibartarra, "Bi lore" eta "Bizitzaren eskena garratz eta eztiak" ipuinarengatik.

2. saria: Amaia David eibartarra, "Esperoan bizi den herria" lanarengatik.

Herriko onena: Edurne Olazabalen "Izpirituen indarra".

❖ **Bizkotxogintza ikastaroa**

Deba Beheko Mendi eta Nekazari-tza Elkarteak, "Heziketa plangintza 97/98" programaren barruan, Deba Beheko baserrigunean bizi diren emakumei zuzendutako hainbat ikastaro antolatu ditu. Horien artean, duela urte batzuk galdu zen Mendaroko bizkotxoak nola egiten diren berreskuratu nahi da. Ikastaroak 20 orduko iraupena izango du, Mendaroko emakumeek ere hartu izango dute parte eta Elgoibarko Antxola baserrian izango da otsailaren 9tik 19ra bitartean, arratsaldeko 15:00etatik 17:30era.

Ihauteriak 98

1998ko Ihauteriak direla eta, otsailaren 20an, ostirala, Ikastolako ikasleek mozorro jaialdia egingo dute Ikastolako patioan. Jaialdia arratsaldeko 14:30etik 16:30era izango da.

Larunbatean, berriz, arratsaldeko 16:00etatik aurrera eta Goñati pilotalekuan *Detraka* Animazio Taldea izango dugu gure artean. Bertan, tai-

lerrak (eskulanak, mozorroak, maki-laia, etab.), hankapalu eskola, jolasak eta "Trikimailu Express" musika jaia egingo dira. Haurrek musikarenean bidaiatu ahal izango dute, hainbat herrialdeetako kultura eta ohiturak ezagutuko dituztelarik. Amaieran txokolatea bizkotxoekin banatuko da guztien artean.



Santa Ageda eskea

Ohiturekin jarraituz, otsailaren 7an, larunbata, Santa Ageda eskea izango da herriko kale eta baserrietan. Bildutako dirua txirindulari lasterketa bat antolatzeko erabiliko da,

2. urteko kadeteen mailakoa hain zuzen ere. Maila horretan gaur egun Mendaroko 4 gazte aritzen dira. Lasterketa apirilaren 4an izango da, arratsaldean.



egaña



T
X
O
t
X !

Sagardotegi sasoi

ABURUZA (Aduna)

- **NAGUSIA:** J. Joxe Aburuza Otegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik irailera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 300 lagun.

Olatza baserria (Aduna)
☎ 69 24 52



AKELENEA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzalde elkarte.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte osoan irekita.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 80 lagun.

Oialume bidea, 59 (Astigarraga)
☎ 55 22 42



AMONDARAIN (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Maria Dolores Aierza.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarrilaren 9tik apiril bukaera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 150 lagun.

Gure Ametsa Etxea,
Santa Luzia 25 (Tolosa)
☎ 65 33 54



ASTARBE (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Joxe Manuel Astarbe.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 140 lagun zutik nahiz eserita.

Mendiola baserria (Astigarraga)
☎ 55 15 27



AULIA (Legorreta)

- **NAGUSIA:** Juan Inazio Etxeberria.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatz bukaera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 140 lagun.

Aulia Enea baserria (Legorreta)
☎ 80 60 66



BEGIRISTAIN (Ikaztegieta)

- **NAGUSIA:** Antonio Begiristain.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** ogia eta okela norberak ekarrita.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Iturrioz etxea (Ikaztegieta)
☎ 65 28 37



BENTA (Aduna)

- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik Aste Santura arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Andoain-Aduna etorb., z/g (Aduna)
☎ 69 30 94



EIZMENDI (Hernani)

- **NAGUSIA:** Maixa Eizmendi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak ekarria.
- **LEKUA:** 160 lagun.

Osinaga auzoa (Hernani)
☎ 55 64 05



ELUTXETA (Urnieta)

- **NAGUSIA:** Frantzisko Urruzola.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte osoa (astelehenetan itxita).
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun, zutik nahiz eserita.

Elutxeta baserria (Urnieta)
☎ 55 69 81



GURUTZETA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzeta S. A. T.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** txotx sasoi.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun zutik.

Oialume bidea, 59 (Astigarraga)
☎ 55 22 42



ISASTEGI (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 200 lagun.


Aldaba-Txiki auzoa, 15 (Tolosa)
☎ 65 29 64



KORTA (Gabiria)

- **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta mariskeria. Gazteentzako menu berezia (2.200 pta.)
- **LEKUA:** 110 lagun.

Korta sagardotegia (Gabiria)
☎ 88 71 86



LARREGAIN (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaera arte. Astelehenetan itxita. ▪ **JATEKOA:** sagardotegikoa zein norberak eramandakoa. ▪ **LEKUA:** 120 lagun.

Larregain etxea, Ereñozu (Hernani)
☎ 55 58 46



MATXO (Urnieta)

- **NAGUSIA:** Manuel Igarategi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik denboraldia bukatu arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Idiazabal, 42 (Urnieta)
☎ 55 20 33



OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopategi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa. Urtean zehar merenderoa. ▪ **LEKUA:** 200 lagun.

Otatza baserria (Zerain)
☎ 80 17 57



OTEGI (Lasarte)

- **NAGUSIA:** Julian Otegi Egia.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa edo norberak ekarria.
- **LEKUA:** 170 lagun.

Soile Enea baserria (Lasarte)
☎ 36 50 29



OTSUENEA (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ximon Etxeberria. ▪
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaera arte. ▪
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 150 lagun.

Osinaga auzoa (Hernani)
☎ 55 68 94



REZOLA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** J. Ramon Rezola Isasa.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte osoan zabalik.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua eta arkumea burduntzian enkarguz.
- **LEKUA:** 100 lagun, eserita.


Ipintza baserria (Astigarraga)
☎ 55 66 37



SAGARZAZU (Hondarribia)

- **NAGUSIA:** Serafin Sagarzazu.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik abuztura bitartean.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Barnetxea baserria (Hondarribia)
☎ 64 16 41



USABAL (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Luis Maria Galarza
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte osoa. ▪ **JATEKOA:** sagardotegiko menua. Arraina enkarguz. ▪ **LEKUA:** 350 lagun. (Berogailua badaukagu.)

Usabal auzoa (Tolosa)
☎ 67 43 16




ZABALA (Aduna)

- **NAGUSIA:** Ramon Zabala Mendizabal.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 120 lagun.

Garagarza baserria (Aduna)
☎ 69 07 74



“Fondoko eski lasterketetan dagoen giroa inpresionantea da”



Alberto Agirreazaldegí

- **Adina: 45**
- **Zein kirol falta zaizu probatzeko?** Probatzeko ez, baina igeriketa da zintzilik daukadan ikasgaia.
- **Trabesiako eskirik egingo duzu aurten?** Aurrerago hasten da denboraldia eta bai, badakat trabesia batzuk eitzeko gogua.

- **Astebete egon zara Alpeetan. Zertan?** - Iraupeneko edo fondoko eski froga batzuk zeuden, Austria eta Italia parteko Dolomita mendikatian, Munduko kopakuak. Astebeteko oporrak hartzeko aukera naukan eta Tolosako talde batek juteko asmua zakanez, azken momentuan animau ein nitzan.

- **Nolakoak dira lasterketak?** - Iraupeneko frogak dia, oso luziak. Lasterketa bakoitzean zein estilo erabili leiken finkatzen dute. Fondoko eskian estilo klasikua dao, nordikua, bastoiekin eta arrastotik junda eitxen dana. Eta beste estilua patinatzen eitxen dana da, skating deitzen zaio. Nik bi lasterketa ein ditzut, eskating estiloan. Austriako partian bat, eta gero ‘Marcialonga’ deitzen zaion beste lasterketa bat, Italian. Dolomitetan daude biak.

- **Gogor xamarrek dira, ez?** - Bai, nahiko gogorak. Austriakua berez 65 kilometro zian baina elurra ez zauan kondizioetan eta beste toki batetik ein zan. 42 kilometro zian guztira eta 12 gradokin zero azpitxik. Irteeran zauden bitxartian txamarra jantzita egoten uzten dizute. Urtetzerakuan erropak kendu eta motxila baten barruan sartzen dia. Mutiko bat etortzen da zure motxila batzera eta zenbaki batekin eta kolore batekin identifikatzen dute zure motxila gero zuk jaso ahal izateko. Ezin leike imajinatu ze ondo dauan antolatuta dana.

- **Zer moduz amaitu zenuen?** - Jota, aurretik oso gitxi entrenauta jun nitzala-

ko. Italiako Marcialonga astebete berandu izan zan eta tartian egun batzuk euki genitxun entrenatzeko. Marcialongak 70 kilometro dauzka baina fisikoki Austriakuan baino hobeto amaitxu naban.

- **Zenbat euskaldun ibili zarete?** - Austrian 11. Han denak dia rusuak, txekoak, finlandesak... Marcialongan, berriz, katalan eta espainol gehixo zaozen. Maila handixa zauan: katalan bat, Espainiako txapelduna dana, Haritz Zunzunegi euskalduna... Baina benetan harritzen zaitxuna da 50 urtetik gorako jende pilo bat euren eskixekin ikustia; eta lasterketa osua bukatu! Asko nordikuak dia, han tradizio haundixa daka kirol honek. Pena bat da hemen hain gitxi eitxia. Mendixa gustau ezker oso politxa da. Zure kontura ibil zintezke. Ez da alpinoan bezela, pasiak erosten ibili bihar zerala, remontiak hartu eta holako istorixak.

- **Oso inpresionaturik etorri zara.** - Bai, inpresionantia da ikustia zenbat jendek hartzen daban parte. Marcialongan 5.000 bat pertsona ginan. Irteeria zatika eitxen da. Lelengo multzo bat, gero beste bat, horrela 5.000 eskiatzailiak urten arte. Dorsalaren arabera, aurrerago eta atzerago ateratzen zera. Baina inpresionantiena da bertako jendia zelan bolkatzen dan, oso popularrak dia lasterketa hauek. Herri desberdinetatik pasatzen dia eta herri bakoitzian kriston harrera eitxen dizue. Kanpaiak jotzen dabez, txarangak dabilta kalian, jendiak animuak ematen ditxu... Ikustekua da.



ESKOLARTEKO KIROLAK

AGENDA

(Urtarrilak 31, larunbata, 9. jardunaldia)

ESKUBALDIA

- **Benjamin mut. (Ikastolan)** ■
10:00 Ikas Gorri - Ikas Tximista
11:00 Ikas Bihurri - Mendaro A
12:00 Ikas Bulls - Pilar Lakasitos
12:30 Pilar Bulls - Herri Otsoak
- **Benjamin nesk. (Ikastolan)** ■
9:30 Ikas Bizkor - Ikas Hartz
10:30 Ikas Beleak - Pilar Usoak
11:30 Pilar Txiki - Ikas Ortzadar

3X3 SASKIBALDIA

- **(Pilar ikastetxean)** ■
11:00 Basati B - Pilar Boys A
11:45 Basati A - Pilar Boys B

TXAPELDUN ARDOAK – GAILUR ARDANDEGIA

Banatzailea: Juan Mari Uranga

**Etxerainoko zerbitzua
Mota guztietako ardoak
Sagardoa / Ura
Patata eta txakolina**

Ordutegia: 9:30-12:30 / 17:30-20:30

ZABALIK HILAREN 2TIK AURRERA

San Roke, 30 behea • Tel: 74 33 25

Eskolarteko Atletismo txapelketa jokatuko da bihar, hilak 31, Mintxetan

Gipuzkoako Txapelketarako frogak izango dira

Bihar, hilak 31, Eskolarteko Jokoen barruan, Gipuzkoako Txapelketarako atletismoko hainbat froga jokatuko dira Mintxetan. Goizeko 10:30ean hasi eta eguerdiko ordu bata bitartean alebin eta infantil mailako neska-mutilek zenbait frogatan hartuko dute parte. Alebin neskek eta mutilak 60 m. hesiak, pisu jaurtiketa, luzera jauzia eta 4x60 erreleboetan arituko dira. Infantil mutil eta nesken mailan, berriz, honako froga hauek egingo dira: altura jauzia, 80 m., 600 m. eta 4x80 erreleboak.

Bestalde, joan den domekan, Mintxeta Atletismo Taldeko neska-mutilek Donostiako XLII Nazioarteko krosean parte hartu zuten. Emaitzak honako hauek izan ziren:

ALEBIN MUTILAK

- Julen Merino (3)
- Aitzol Urain (86)
- Enekait Zubiaurre (87)

ALEBIN NESKAK

- Dorleta Aranberri (14)
- Nerea Zubiaurre (21)
- Leire Apellaniz (50)
- Saioa De Pedro (52)

INFANTIL NESKAK

- Ana Etxaniz (15)
- Alaitz Merino (19)
- Nuria Revuelta (41)



Julen Merinok 3. postuan amaitu zuen Donostiako krosean.

EMAITZAK

Futbola

- Haundi 1 - Gernika 0
- Urki 0 - Elgoibar 6 (2. erreg.)
- Pedrusko 3 - Eibartarrak 1 (2. erreg.)
- Unión Txiki 0 - Elgoibar 0 (E. L. Jub.)
- Elgoibar 0 - Mondragón 2 (1. jub.)
- Real Sociedad 3 - Elgoibar 2 (Kad.)
- Elgoibar 5 - Urola 1 (Inf.)
- Elgoibar 1 - Sondika 2 (Neskak)

Eskubaloia

- Unceta Elg. 23 - Urola 7 (Kad. nes.)
- Pulpo 30 - Pneumax Elg. 11 (Kad. mut.)
- Arrasate 10 - Pagoaga Elg. 23 (Jub. nes.)
- Pulpo 21 - Tecnomeca Elg. 33 (Jub. mut.)
- Aierru 30 - Elgoibar 18 (Seniorrak)

Idarraga Kafeak 1. Saria

- C.D.ko jokalaria erregularrena 97/98
- Jokalaria Puntuak
- 1- Miguel Díaz 29
 - 2- Gorka Guarrotxena 22
 - 3- Gaizka Lazarobaster 19
 - 4- Eneko Barrenetxea 19
 - 5- Ander Iruretagoiena 19
 - 6- Iker Atxabal 17
 - 7- Jabier Gurrutxaga 15
 - 8- Joseba Igartua 15
 - 9- Karlos Madina 13
 - 10- Koldo Agirregomezkorta 12
 - 11- Xabier Alonso 9
 - 12- Jon Argoitia 9
 - 13- Unai Aranburu 7
 - 14- Mikel Elgoro-Iribe 4
 - 15- Igor Prieto 1
 - 16- Aitor Trebiño 4
 - 17- Aiert Zinkunegi 4
 - 18- Mitxel Badiola 2

AGENDA

Futbola, Mintxetan

- Larunbata, 31
- 16:30 Elgoibar - Aretxabaleta (E. L. Jub.)
- Igandea, 1
- 10:00 Elgoibar - Aldapetarrak (Kad.)
- 17:00 Haundi - Torrelavega

Eskubaloia

- Igandea, 1
- Mutrikuko Kiroldegian
- 9:30 Elgoibar - Ormaiztegi (Seniorrak)
- Azkoitiko Kiroldegian
- 10:00 Pneumax Elg. - Ereintza (Kad. mut.)
- 11:30 Tecnomeca Elg. - Ereintza (Jub. mut.)

Atletismoa, Mintxetan

- Larunbata, 31
- 10:30 Eskolarteko jokoak

KIROL ALBISTEAK

● Otsailaren 4an, Kopako beste fase bati ekingo dio Haundik

Euskal Federazioaren kopa lortu eta gero, Haundi taldeak Kopako hurrengo faseko lehen partidua jokatuko du datorren asteazkenean, otsailak 4. Lehen partidua etxetik kanpo izango da, Calahorran, eta bueltakoa, berriz, Mintxetan, otsailaren 11n. Final zortzirenak jokatu ahal izateko, Haundik irabazi egin behar du lehen kanporaketa hau. 97/98 denboraldian ederki ari dira elgoibartarrak bai Ligan bai Kopan. Hortaz, aukerak, izan, badituzte.

● Elgorriaga eta Arrate, Kiroldegiko frontoiaren berrinaurazioan

Otsailaren 15ean Kiroldegiko kan txaren berrinaurazioan, eskubaloi partidu berezi bat jokatuko da: gorengo kategorian dagoen Elgorriaga Bidasoa eta maila bat beherago dagoen Arrate eskubaloi taldeen arteko partidua, hain zuzen. Azken asteotan frontoia itxita egon da hormak margotzen eta zolu sintetikoa jartzen aritu baitira. Lan hauen kostua 8 bat milioikoa izan da. Inaugurazioa otsailaren 15ean izango bada ere, rokdromoa lehenagotik, otsailaren 4tik aurrera erabili ahal izango da.

Tina Modotti argazkilariairen erakusketa

1920 urte inguruan Mexicon ateratako bilduma da ikusgai dagoena

Joan den asteazkenean ireki zituen atek Ongarri Argazki Taldeak antolatu duen argazki erakusketak. Tina Modottiren argazkiak dira Kultur Etxean erakusgai egongo direnak datorren otsailaren 28ra arte.

Tina Modottik urte batzuk eman zituen Mexicon. Kultur Etxean ikusgai dauden argazkiak garai horretan egingakoak dira. Modotti mende honetako argazkilaria garrantzitsuenetariko baten eskutik hasi zen argazkilaritzan, Edward Weston-en eskutik, hain zuzen. Bien artean harreman estua sortu zen eta Mexicora alde egin zuten herrialde erromantiko baten bila. Bertako giro iraultzaileak eraginda, abangoardiako argazkilaritzaren erakusle bihurtu zela esan daiteke. Weston-engandik behinbetirako bananduta, politika eta argazkilaritza bat eginez, ikuspuntu errealista eta praktikoa batetik lantzen du argazkilaritza. Bere kamararen bidez bi-

degabekeriak salatzeaz bat, militantzia politikoan buru belarri sartzen da.

Ongarri eta Espainiako Mexicoko Institutuaren artean bildutako 26 argazki hauetan, Tina Modottiren bizitzan eragin handia izan zuten pertsonaia eta uneak azaltzen dira: J. A. Mella komunistak, Carlos komandantea, nekazariak, hauen bizimodua, Mexicoko auzo marjinatuak txabolak, langilegoa, lanbideak, etab. 1930 urtean Mexicotik bidali egin zuten akusazio faltsu bat medio, Pascual Ortiz presidentearen aurka atentatzen saiatu zela eta. Harrezkero, batetik bestera ibili zen, Holanda, Berlin, Errusia eta azkenik, Espainara iritsi zelaririk. 1936an, Nazioarteko Brigadetan sartu eta Hemingway eta Robert Capa bezalako pertsonaia ezagunekin egin zuen topo.

Kultur Etxeko erakusketa amaitu bezain pronto, argazki bilduma Belgikara eramango dute.



Militantzia politikoaren eragina ikusten da Modottiren argazkietan.

● Unai Villenak beste sari bat irabazi du

Unai Villena idazle gazteak beste sari bat jaso du aste honetan. Atzo, hilak 29, Euskaltzaindiak antolatu eta BBKk diruz laguntzen duen Resurreccion Maria de Azkue lehiaketako bigarren saria jaso zuen Bilbon. Ipuinen atalean eta 14 eta 17 urte bitarteko mailan hartu zuen parte Unai. Saritutako lanaren izenburua "Beste lekuetan ere txakurrak oinutsik dabilta" da eta 40.000 pta. jaso ditu.

● Galiza Etxeko zuzendaritza berria

Abenduaren 14ko urteko batzar orokorrean zuzendaritza berria aukeratu zuten Galiza Etxean. Vicente Ribao aukeratu dute presidente; Francisco Santaren presidenteordea; Venerando Cid idazkaria; Sabino Bersistain diruzaina; Gaudencio Sierra liburuzaina; Gumerindo Vila harreman publikoetarako ordezkaria eta bokalal Gensarico Fernández, Eduardo Barandela eta Juan Novoa.


Edu Arrillaga FotoGran Prix 97 lehiaketan saritu dute

3.000 argazkilariren artean saritu dute

Eduardo Arrillaga argazkilaria elgoibartarrak Bartzelonako FotoGran Prix 97 lehiaketan ematen diren sarietako bat jaso du. Lehenengo sariaz aparte, 40 aipamen berezi edo akzesit ematen dira, eta horietako bat argazkilaria elgoibartarrentzat izan da. Eduardok Bartzelonako Rambletan ateratako erretratu bat izan da saritu dutena. Lehiaketa honetan momentuko argazkilaririk onenek hartzen dute parte. Aurtengo edizioan guztira, 3.000 argazkilaria eta 15.000 argazki aurkeztu dira. Sari banaketa Bartzelonako Pedralbes jauregian egin zen eta Joan Clos, Bartzelonako alkatearen eskutik jaso zuen saria. Arrillaga izan da lehiaketan parte hartu duten egile euskalduen artean saritu duten bakarra.

Bestalde, gaur, hilak 30, Eduardo Arrillagaren "Herri baten argia" izeneko argazki bildumaren erakusketa inauguratu da Donostian, bertako So-

ciudad Fotográfica elkarteak antolatuta. Argazki hauek Elgoibarko base-rrietan daude eginak eta 97ko San Bartolome jaietan egon ziren ikusgai gure herriko Kultur Etxean. Gogora ekarri behar da, bilduma honek hirugarren saria jaso zuela "Imajina eza-zu Euskadi" lehiaketan.



Lan Harremanak

Itziar Albarran

- Lan harremanak ikasketak egin zenituen. - Bai. Lehen "Graduado social" deitzen zan. Oingua iguala da baina beste izen batekin eta plan berrixan sartuta. Nik hiru urtetan ikasi naban eta oin uste dot lau urteko ikasketak diazela, baina material berdina dake.

- Zer da "Lan harremanak"? - Zuzenbidea izango balitz bezela baina bakarrik lan arluan zentratzen da: langilien eskubidiak, lan munduko zuzenbidea, gizarte segurantzza, sindikatuak... Pertsonalaren administrazioan eta harreman sozio-laboralaren arluan antolakuntza, kontrol, aholkularitza eta gestioaz arduratzen dan teknika da.

- Ikasketa erabat teorikoak al dira?

- Ez. Kontabilidadia, estadistika, ekonomia eta holako asignaturak ere badaude eta klase praktikuak izaten dia. Ez da zuzenbidea ikastea bezela, ez da dena legeak eta legeak ikastea.

- Zaila al da? - Bueno, pentsatzen dot karrera guztietan bezela ikasi ein bihar dala.

Hala ere, klasian egunero ematen ditxuen apuntiak erreparatzen ondo ibili leike. Hori bai, daukazun informaziua gehitzia nahi badozu liburu mordo bat daude eta horiek kontsultatu eta irakurtziak denboria eskatzen dau.

- Zein dira irteerak? - Batez ere asesoretan, laborala, fiskala, juridikua... Sindikatuetan, enpresetan gero eta gehixo giza errekurtsioen departamentuan, enplegu bulegoetan...

- Momentu honetan Aldi Baterako Enplegu Bulego batean zaude lanean, ezta? - Bai, oin dala hilabete inguru hasi nitzan. Pertsonalaren aukeraketa sailean nago. Nere lana da enpresaren batian bateronbat bihar dabenian, guk dakaguzen kurrikulum-ak errebisau, perfila betetzen daban jendiari deitxu, elkarrizketak edo azterketia ein...

- Zuzenbidea ere ikasten zabilta. - Bai, laugarren mailan nago. Hasieran, Lan Harremanak eixia erabaki naban urte gitxio diazelako eta ez nakalako oso garbi zer nahi naban. Gero, gustau ein jatan eta amaitxu nabanian, zuzenbidea ikasten hastia erabaki naban. Karrera honetan bai dala denbora guztian legiak ikasten ibiltzia, baina gustura nao eta gero eta gitxio falta da amaitzeko.

- Zer da gehien gustatzen zaizuna zure ikasketetatik? - Batez ere hasieratik konturatu nitzala ikasten ari nitzanak bazakala aplikazio praktikua eguneroko bizitzan. Periodikua irakurtzen edo telebisiua ikusten, askotan urtetezen dia espresio eta hitz batzuk karreran ikasi genitxunak. Askotan pasatzen da alperrikako gauza mordo bat ikasten ditxuzula, oin ikasi eta gero ahaztu eitxen jatzuzenak. Baina kasu honetan ez da hola, eguneroko bizitzako gauza asko ikasi ditxut.

- Eta ikasten jarraitu behar, ez? - Bai, ze hau ez da karrera amaitxu eta listo. Ixa egunero gauza berrixak urtetzen dia lan munduan, legiak diala edo beste zeozer dala. Horregatik, ondo preparauta egon nahi badozu asko irakurri bihar dozu, boletinak errebisau... Nekosua dan arren, era berian aberasgarria ere bada.



UNIBERTSITATEA ETA ESKATZEN DEN NOTA

- ⇒ Alicante (5)
- ⇒ Almeria (5)
- ⇒ Bartzelona (5,69)
- ⇒ Burgos (5)
- ⇒ Cadiz (5)
- ⇒ Cuenca (5,21)
- ⇒ Albacete (5,02)
- ⇒ Ciudad Real (5,02)
- ⇒ Carlos III Madrid (5,64)
- ⇒ Complutense Madrid (5,28)
- ⇒ Cordoba (5,11)
- ⇒ Granada (5)
- ⇒ Huelva (5)
- ⇒ Jaen (5)
- ⇒ La Coruña (6,01)
- ⇒ La Laguna (5,93)
- ⇒ Errioxa (5)
- ⇒ Balear Irlak (5,3)
- ⇒ Kanariar irlak (5,06)
- ⇒ Leon (5)
- ⇒ Lleida (5)
- ⇒ Malaga (5)
- ⇒ Murtzia (5)
- ⇒ EHU (5,39)
- ⇒ Nafarroako Unibertsitate Publikoa (5,24)
- ⇒ Salamanca (5)
- ⇒ Santiago de Compostela (5,29)
- ⇒ Sevilla (5,08)
- ⇒ Valencia (5,48)
- ⇒ Vigo (6,03)
- ⇒ Zaragoza (5,37)

**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

30

ostirala

.....

**19:00 GAZTE
 ASANBLADAren
 BILERA**
 Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
 "Tocando el viento"

31

larunbata

.....

19:30 ZINEA
 "Hércules"

22:15 ZINEA
 "Después de una noche"

22:30 KONTZERTUA
 "Gutariko bat" eta "Pur"
 Gaztetxean

1

igandea

.....

16:30-19:30 ZINEA
 "Hércules"

22:15 ZINEA
 "Después de una noche"

2

astelehena

.....

19:30 ZINEA
 "Hércules"

22:15 ZINEA
 "Después de una noche"

4

asteazkena

.....

**14:30 SANTA ESKEAN
 AUZOZ AUZO**
 Antolatzailea: Elgoibarko
 Izarra

**19:00 SANTA
 AGEDAKO KORUEN
 ETA ITXAROPENA
 ABESBATZAren
 KALEJIRA**

5

osteguna

.....

19:30 HITZALDIA
 Gaia: Terapia naturalak
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Haizea
 Emakume Taldea

6

ostirala

.....

22:30 ANTZERKIA
 Izenburua: "La espera"
 Antzezlea: Virginia Imaz
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Haizea
 Emakume Taldea

ZINEA



Zuzendaria: Mike Figgis
**Antzezleak: Wesley Snipes, Nas-
 tassja Kinski, Robert Downey Jr.**

Después de una noche

Emakume eta gizonezko batek pasioz-ko gau bat bizi dute New York-eko hotel batean. Bien arteko ezusteko harreman honek etorkizunerako markatuko ditu. Izan ere, maitemindu egin dira. Urtebete beranduago, berriz topo egingo dute baina egoera erabat ezberdina izango da. Bakoitza bere bikotearekin dago.

● **Santa Ageda eta San Blas Pilar ikastetxean**

Urtero bezala, otsaileko lehenengo astean Pilar ikastetxean San Blas eta Santa Ageda egunak ospatuko dituzte. San Blas egunean, otsailak 3, ikastetxeko ikasleak parrokiara joango dira opilak eta kordelak bedeinkatzera. Santa Ageda bezperan, berriz, koplak eta Salbea abestuko dute ikastetxeko jolaslekuan.

● **Santa Agedako koruen entsaioa**

Santa Agedako koruak otsailaren 7an, zapatua, aterako dira koplatan herriko kaleetan zehar. Parte hartu nahi duten zaletu eta herritar guztiei jakinarazi nahi diete antolatzaileek entsaioa otsailaren 2an egingo dela, iluntzeko 20:00etan merkatu plazako azken solairuan. Santa Ageda bezperan, otsailak 4, Itxaropena abesbatzarekin batera Santa Agedako koruak irtingo dira kantu kantari herriko kaleetan.

● **Santa Ageda bezperan, otsailak 4, koplakantari baserrietan**

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Santa Ageda bezperan, otsailak 4, Elgoibarko baserrietan zehar ohiko Santa Eskea egingo da. Arratsaldeko 14:30ak aldera hasi eta gaueko 22:00ak arte baserriaz baserri arituko dira koplakantari. Aurten San Migel, San Lorentzo eta San Pedro auzoak koplakantari dituzte. Eguna amaitzeko, San Migeleko elkartearen lagunarteko afaria izango dute.

● **Terapia naturalei buruzko hitzaldia**

Haizea Emakume Taldeak eta Emakundek antolatuta, terapia naturalei buruzko hitzaldia izango da datorren ostegunean, otsailak 5, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Psikologo batek terapia hauen inguruko hainbat azalpen emango ditu. Saioa ilun-tzeko 19:30ean hasiko da.

Bestalde, datorren ostiralean, otsailak 6, umorezko antzerki saioa eskainiko du Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek. "La espera" (En busca del Principe azul) izenburuko antzezlan gazteei zuzenduta dago. Saioa gaztelaniaz izango da eta Herriko Antzokian, gaueko 22:30ean hasiko da.

ONGARRI Zine Kluba

Zine frantsesa eta Zinemaldietako sariak

Datorren astean ez da zine klubik egongo. Otsailaren 12an hasiko gara berriz emanaldiekin, gaur eguneko zine frantsesaren lan adierazgarri batzuekin. Europako Zinemaldietan sariak jaso dituzten pelikulak dira. Otsailaren 12an Cannes 97 jaialdian epaimahaikoen sari berezia jaso zuen "Western" filmea botako dugu. Britainiako lurretan zehar gertatzen den errepedeko filmea da, injineru katalan baten eta emigratu beharra izaten duen gazte erusiar baten arte-



Western filmearen fotograma bat.

ko abenturak azaltzen dituen. Otsailaren 19 eta 20an, Chabrolen "No va más" pelikula emango dugu, 97ko Donostiako Zinemaldian urrezko maskorra jaso zuena. Chabrolek genero ezberdinak nahasten ditu, atmosfera tragikomiko bat lortuz. Hileko azken filmea, otsailaren 26koa, "Un héroe muy discreto" da, Valladoliden zilarrezko saria jaso zuena. Frantziar, gerra osteko garaian, Erresistentziako pertsonaia bat izango baltiz bezala azaltzen zaigu protagonista.

TRANDAR

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
31	Etxeberria* (Santa Ana)	Zabaleta
1	Etxeberria* (Santa Ana)	Zabaleta
2	Etxeberria (Erosario kalea)	Etxeberria
3	Escala	Escala
4	Bidasolo	Bidasolo
5	Etxeberria (Santa Ana kalea)	Etxeberria
6	Anduaga *(eguerdiko 2ak arte)	Anduaga

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

1 igandea Zabaleta

Lana

◆ **ESKAINZA** ◆

- ◆ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta goizeko 7:45etik 11:00etara umea zaintzeko. ☎ **74 18 70** (gaueko 9etatik aurrera)
- ◆ Asteburu eta jaietarako emakumea behar da bokadiloak egiten esperientziarekin eta egunero taberna garbitzeko aukerarekin. ☎ **74 37 71**
- ◆ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ **74 45 87**

◆ **ESKAERA** ◆

- ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ **74 23 90**
- ◆ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ **74 21 44** (Ana Isabel)
- ◆ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ **74 43 31** (Agurtzane)
- ◆ Eskopetero-armeroa eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko ☎ **17 47 70**
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **17 47 70**
- ◆ Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsero edo enkofortzaile lanak egiteko. ☎ **17 47 70**
- ◆ Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. ☎ **74 15 09** (Victoria)

Partikularrak

- ◆ Kimika lizentziatua naiz eta fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ **74 44 45** (Arrate)
- ◆ Latin eta literatura klaseak emateko irakaslea behar da. Curriculum-a bidali **Bergarako 245 postakutxara**.
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ **75 50 35** (Imanol)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen dira. ☎ **74 07 86** (Nerea)
- ◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ **74 41 16/ 907 15 30 62**
- ◆ Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ☎ **74 12 05** (gauzez)

Garajeak

- ◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ **74 22 00** (gaueko 9etatik aurrera)
- ◆ Garajea salgai Urasandin (5 eta 7 zenbakien azpian). ☎ **74 13 07**
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ **74 12 04**
- ◆ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. ☎ **74 13 82**
- ◆ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ **74 27 89**
- ◆ Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. ☎ **74 04 34**
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut King-Kong-en. ☎ **76 17 95**

Salerosketak

◆ **SALDU** ◆

- ◆ Pasiararako Country Bike bizi-kleta saltzen da. Gutxi erabilia. Berde iluna. Prezio onean. ☎ **74 41 45** (gauzez)
- ◆ Pentium 75, 16 MB RAM, 640 MB Disko gogorra, 3,5 disketera, CD ROM X4, inpresora, arratoia, Windows 95 eta Office 97 programekin salgai. ☎ **74 19 21**.
- ◆ Lau txakur salgai. Hilabete dute. ☎ **74 16 86** (Antonio)
- ◆ Solarium-a saltzen da prezio onean. ☎ **74 45 87**
- ◆ Kotxeak salgai: Lada Niva. Matrikula SS 8952 AH eta Seat Panda, SS 3368 N. Prezio onean. ☎ **74 03 75** (arratsaldeko 7etatik aurrera)
- ◆ Mendi trabesiako botak saltzen ditut. TR9 Nordika, 42 zenbakikoak. ☎ **75 16 80** (Gauzez)
- ◆ Hozkailu bitrina, pisu elektronikoa eta kutxa erregistratzaile txikia salgai. ☎ **75 50 09** (gauzez)
- ◆ Taberna traspasatzen da Plaza inguruan. ☎ **74 00 16**
- ◆ **EROSI** ◆
- ◆ Lokal merkea erosi nahi genuke kalean. ☎ **74 36 94** (Ainhoa Alonso)
- ◆ Manikiak behar ditut eskaparaterako. ☎ **58 09 18** (Bego)
- ◆ Hariak gordetzeko armairua, botoiak forratzeko makina eta kutxa erregistradora erosiko nituzke. ☎ **58 09 18** (Bego).
- ◆ Txabola erosiko nuke Elgoibarraren edo inguruan. ☎ **74 37 87**

Etxebizitzak

- ◆ Pisua salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m2 eta ganbara. ☎ **74 11 05**
- ◆ Etxea salgai Urasandin. 90 m2, 3 logela, sukaldea, 2 komun, ganbara eta 3 terrazatxo. Koketoa. ☎ **75 52 15**
- ◆ Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrora. Berritua. ☎ **908 57 95 89**
- ◆ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekin. ☎ **74 00 65**

Bestelakoak

- ◆ Lora-dietetika denda traspasatzen da Berrizen atentidu ezin dugulako. Herrian dagoen bakarra da eta 11 urte daramatza martxan. Nahiago lora kontuetan esperientzia duen jendea bada. Dendako ordutegian deitu. ☎ **94 - 68 24 228**
- ◆ Kaixo! Euskara ikasteko gogo handia dut. Zuk ikasi nahi al duzu, bide batez, alemaniera nirekin? Noiz elkartuko gara? Deitu elkar ikusteko. Gramatika menperatzea eskatzen da. Maria Theresia **74 40 40** (egunez). ☎ **989 07 84 72** (gaueko 9etatik aurrera)
- ◆ Pastor Alemana galdu zen asteazkenean San Migel auzo inguruan. Gris kolorekoa da eta 7 hilabete ditu. ☎ **74 32 57**.
- ◆ San Anton egunean eskiatzeko umeen txamarra gorria, marra beltz eta zuriekin, galdu nuen. ☎ **74 28 75** (Maria)
- ◆ Joan den astean ballet-eko jantzi arrosa eta zapatila bat galdu nituen San Bartolome kalean. Aurkitu dituenak dei dezala, mesedez. ☎ **74 41 33**
- ◆ Cáritasek tresilo bat hartuko luke. ☎ **74 15 09/ 74 12 57**
- ◆ Cáritasek sukaldea, labea eta garbigailua emango lituzke ☎ **74 15 09/ 74 12 57**
- ◆ Solfeoko karpeta galdu dut. Kodernoetan Aritz Cerviño Gorostiza izena agertzen da. ☎ **74 12 69**
- ◆ Roy Txandal markako jertsea kendu zidaten Kiroldegian konfusioz. Mesedez, hartu zuenak laga dezala Kiroldegian.
- ◆ Urtarrilaren 5ean Mercadeco, Misio Taldeak Errosario kalean jarri zuen dendan, eskularru marroiak laga zituen ahaztuta norbaitek. ☎ **74 23 22**
- ◆ Buztan beltza duen katu siamesa galdu nuen Pedro Muguruza inguruan. ☎ **74 17 87**

Agurrak

- ◆ Zorionak **Ana Guadalupe Navarroi** hilaren 22an 16 urte bete zituelako. Ez zaitez kezatu aurreko BARREn ez zinelako agertu! Lagunen partez, bereziki Kataluforen partez.
- ◆ Biharrarte beteko dituen gure "arraintxo" **Amaia Reverti** zorionak AEKko ikaskide eta irakaslearen partez.
- ◆ Superzorionak **Miriam Lizarralderi** asteartean, hilak 27, urteak bete zituelako. Gelakoen partez zorionak eta beste metro bat bete dezala!
- ◆ Zorionak **Ainhoa Cantosi** bihar, hilak 31, 12 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia Aitorren partez.




◆ Zorionak **Ainhoa Cantosi** bihar, hilak 31, 12 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia Aitorren partez.



◆ Zorionak **Ander Martini** urtarrilaren 26an 9 urte bete zituelako. Bere anaia eta gurasoen partez.



◆ Zorionak **Borjari** igandean, 6 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia Zigorren partez.



◆ Zorionak **Maitane Moredari** bihar, hilak 31, 9 urte beteko dituelako. Guraso, aita, izeba eta ahizparen partez.




◆ Zorionak **Jon Ander Martini** otsailaren 1ean 2 urte beteko dituelako. Bere guraso, aiton-amon eta osaben partez.



REZOLA

gasolindegia



**ZERBITZU
BERRITUAK**

Prezisioko
garbiketa

Garbiketa
neumatikoa

Aspiragailua

BERUNIK GABEKO GASOLINA ■ MICHELIN AGENTZIA ■ GURPIL NEURKE-

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*0% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*

San Frantzisko, 43 – Tel: 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 20 34 45 – EIBAR



500 ale saldu dira GABONETAN,
eskuratu zeurea
bukatu aurretik.



BARRENen atera diren
100 erretratu zahar
politinak **1.000** pta.

Bihar,
urtarrilak 31, larunbata,
kalean izango gara.

Eta gainera
PITXINTXU, GOROSTIZA,
BARREN eta ELGOIBARKO IZARRAn
eros dezakezu.